

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, KONTSUMOBIDE-KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2020

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen joan den urriaren 10ean Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren gaineko fiskalizazio txostena, 2020ko ekitaldiari buruzkoa.

Epaitegiak **aldeko iritzia** plazaratu du **urteko kontuei** dagokienez, nahiz adierazi duen abenduaren 31n kobratzeko kontuen balio-narriadurak Kontsumobidek aurkeztutakoa baino 180.069 euro handiagoa izan behar duen.

Kontsumobidek zuzentasunez **bete du** 2020ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jarduera arautzen duen **lege araudia**.